

## Ingurugiroa

# «Gasbideari ez» erraiteko manifestaldia bihar Zuberoan

EBk ez du manifestaldira deitu gasbideak badituelako abantailak

**B**iarnoko Lacq-etik Errioxako Calahorraraino, Zuberoa eta Nafarroa zeharkatuz egiteko helburuarekin gasbidearen aurka diharduen Gaz-Pars elkarteak manifestaldi bat antolatu du biharko, Aarrantze eta Maulen. Elkarte honen bidez, elkarteak berriz ere adierazi nahi du Frantzia eta Espainiako Industria Ministeritzen arteko hitzarmenez gasbide honen eraikitzeak erabakia osoki arbuizten duela.

ALLANDE SOKARROS / MAULE

Gaz-Parsek hasieratik deritzona errepikatzen du bere azken agirian: «Nagusikeria baten bitartez inposatu digute gasbide hori eta laborariek nahiz beste herritar askok ez dute onartzen sozietate handi batzuek gure bizkar jar dezaten, kalteak, arriskuak eta morroitasuna berarekin ekarriko duen eraikidura bat». Azpimarratuz mendi herrialdeak eskualde industriadunen are gehiago gartzeko eta aberasteko baliatuak dudelako, Gaz-Parsek gaineratzen du:



Gasbidearen kontrako manifestazioa izango da bihar.

«herrialde antolakuntza politika hau ezin du onartu. Gure geroaz eta gure biziaz hartu behar ditugun erabakiak denen artean erabaki behar ditugu».

Biharko manifestaldiarekin Gaz-Parsek berriz ere «gasbideari ez» oihua plazaratu nahi du eta Zuberoako baita ere beste euskal herrialdeetako bizilagunak deitzen ditu bertan parte hartzera. Lehen elkartzea Aarrantzen izango da arratsaldeko ordu bietan eta ondoren Mauleko bidea hartuko da karakoil urrastean. Gaz-Parsen iritziarekin bate-

ginek, Iparraldeko politika elkarte batzuek biharko manifestaldia horretara dei egiten dute, hala nola Euskal Herriko Berdeek, beraientzat «gasodiak ez bait du autobide batek baino gehiago zerbizatzen eskualde baten garapena. Ez du berarekin ekartzen arrisku, kalte xehatze eta poxelu baizik». Abertzale mugimenduaren aldetik, aldiz, EMAk dio: «gasodiaren egitea, arriskutsua izateaz gain, kontzertaziorik gabe erabakia izan da eta Zuberoari ez dio deus onik ekarriko».

## Atxarteko harrobiez erakundeek hartutako akordioa «herrena» dela adierazi du HBk

G. AGIRRE / BILBO

Atxarte eta Atxatikiko harrobietako hustiaperenak debekatzeko, hurrenez hurren joan zen astetik eta azaroaren 24etik aurrera, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak hartutako akordioa «herrena» dela adierazi zuen atzo Julen Aginako HBko Mahai Nazionalakoak.

«Akordioa herrena dela diogu, gure zalantzak bait ditugu, akordioa gatazkari irtenbidea emateko erakundeen borondatearen emaitza denik. Herrena dela diogu, akordioa

beranduegi heldu delako baita ere Baskongadetako Gobernuak zein Diputazioko ordezkariak egin dituzten deklarazioetan, zenbait hutsune eta kontraesan agertzen direlako», azaldu zuen Aginakok.

Ido honetatik, HBko ordezkariak dei egin zuten erakundeek Atxarte eta Atxatikiko etorkizunaz, erakundeek beren borondate eta asmoak argi eta aurrerapausu gehiago eman ditzaten.

HBren arabera, erakundeen artean hartutako erabakiak harrobien behin-betiko itxiera ekarri beharko

luke, baita harrobien berreskuratze proiektua martxan jartzea ere, baina berreskurapena erausketarik gabe egin behar dela zehaztu zuen Aginakok.

Bi harrobiak ixteak ez duela lanpostuen galera ekarri behar adierazi zuen HBko Mahai Nazionalako partaideak. Eta zentzu honetan, «tamalgarriztat» jo zuen mugimendu sozialak bakarrik langileen lanpostu aurkitzeko alternatibak eskaini izana. «Jaurlaritzak irtenbide bat eskaini behar die harrobietako langileei, bere erantzukizuna direlako».

HBk zalantzak agertu zituen, hustiaperenak debekuari buruz akordioa gure herriak pairatzen dituen ingurugiro erasoak garbitzeko ezik ez ote den erakundeen aurpegi garbitzea».

Era berean, egun Atxarteko harrobia barrenatzen ari direla esan zuen Aginakok eta zentzu honetan, erakundeek erausketa gehiagorik egon ez daitezen beharrezko kontrol neurriak har ditzatela eskatu zien.

Azkenik, Abadinoko Udaleko HBko zinegotziek, Javier Uriarte EAJko alkate eta EAJ eta EAren zinegotzien aurka jarri duten salaketaren berri eman zuten: «Pertsona hauek prebrikazioko delitua egin dute, harrobien erausketa baimena lutzatuz, udal teknikariek legez kanpoko zela ohartarazi arren».

## Gorosti elkarte ekologista Larrauko gasbidearen aurka

IRUNEA

Gorosti Natur Zientzi Elkarteak Larrauko gasbidearen proiektuaren kontrako jarrera berretsi du ohar baten bidez, Pirinioetako plangintza orokorra egitearen alde azaltzeaz gain. Halaber, bihar larunbata Aarrantzen (Zuberoa) egingo den manifestaziorako deia egin du Nafarroako elkarteak.

Gorosti elkarteak haste hasietik adierazi zuen proiektuaren aurkako jarrera, eta uztailaren 6an zenbait alegazio aurkeztu zuen proiektua informazio publikoan zegoela eta. Bertan aipatzen zuenez, Larrau aukeratzeko ez du logikarik ekologikoki, horrela apurtzen bait da azpiegitura guztiak leku berean parartzeko gomendio eta irizpidea. Halaber, Gorosti elkartearentzat, proiektuari

buruzko ingurugiro inpaktuaren azterketak «ez dauka inolako fidagarritasunik, kontutan hartuz ENA-GASEk aurretik egindako zenbait proiektu».

Elkarteak ere segimendu batzorde osatzea eskatu zuen orduan, «lanen garrantziaz ohartuta eta proiektua nahiko iluna zela kausa». Batzorde horren kontrola lanak gelditzeraino hel zitekeen.

Alegazio guzti hauek onartu ezik, beste zenbait alegazio zehatzagoak aipatzen zuen Gorosti elkarteak, hala nola, gasbidea Larrautik Otsagiraino joaten den errepidearekin batera joatea, kaltetutako espezieen birlandaketa ziurtatzea, inpaktu bisuala leuntzeko neurriak parartzeko, lanen ardura izango duen pertsonala inguruarekiko sentsibilitatea izatea eta beste.

## Garraioa

### Hegalaldiak gutxitu dira Gasteiz eta Donostian baina ez Bilbon

GASTEIZ

Gasteiz eta Donostiako aireportuetako hegalaldiak gutxitzen doazenean, Bilboko aireportuan goraka egin du hegalaldi kopuruak. Urte honetan Euskal Autonomi Elkarteak —EAE— hegaladien % 76 egin dira Bilboko aireportutik.

Madrileko Gobernuak EAEn duen ordezkariak emaniko datuen arabera, urrian 114.458 lagunek erabili zuten Sondikako aireportua. Iazko urriarekin konparatuz % 16'2 igo da aireportu hau erabili duten pertsonen kopurua. Foronda eta Hondarribiko aireportuetan berriz, % 17'8 eta % 18'5 gutxitu da. Forondako aireportua 18.783 lagunek erabili dute aurtan eta Hondarribikoa aldiz, 9.212 lagunek.

Gasteizko Foronda aireportutik Barcelonara zihoan hegalaldia bertan behera geratu zen joan den hila-

betean, eta Madrileko Gobernuaren ordezkariaren ustez, eguneroko hegalaldietan eragin du, 3.000 bidaiari gutxiago izatea eragin du honek ahin zuzen. Dena den, lasterrera Gasteizko aireportuko bidaiariren kopuruak goraka egingo duela uste du Madrileko Gobernuaren ordezkariak, Barcelonarako hegalaldia berrezarri delako.

Urrian EAEnko aireportuetako hegalaldi komertzialak 142.453 bidaiari gehiagok erabili zituzten, 1990. urteko urriarekin konparatuz % 7'4 igo da bidaiariren kopurua. 1991. urtearen lehen hilebetetan 1.304.410 bidaiari ibili dira EAEnko aireportuetan, iaz baino % 3'5 gehiago. Hegalaldi motak kontutan izanik, barruko hegalaldi komertzialak egin zituzten 118.470 bidaiarik eta 23.983 bidaiarik, aldiz, nazioarteko hegalaldi komertzialak egin zituzten.

## Erlizjoa

### Zelibatoa onartzearen alde dago Berlineko apezpiku katolikoa

DONOSTIA

Georg Sterzinsky kardinalak, Berlin-eko apezpikuak, zalantzan jarri du Eliza katolikoak abadeei inposatutako zelibatoaren derrigortasuna. Baldintza hau betetzea ezinbestekoa da apaizgoarentzat, Eliza Katoliko ofizialaren arabera. Sterzinsky Elizaren lehen burua izan da agindu hau dudatan jarri duena.

Zelibatoa «ez da dogma, Eliza ofizialaren disziplinazko agindua baizik» Berlineko apezpikuak atzo osteguna 'Berliner Morgenpost' egunkarian argitaratutako elkarrizketan adierazi duenez. Joan Paulo

IIak kardinal izendatu zuen Sterzinsky joan den ekainean eta mandatarariaren hitzek Eliza Katolikoaren buruaren irizpideei kontra egiten diete.

Apezpikuak komunikabide alemaniarrari azaldu bezala, zelibatoa «beranduegi» onartu zuen Elizak. «Hastapenetan abade ezkonduak izan ziren» esan dio Sterzinsky Berlineko egunkariari.

«Saso hartan zilegia zen hori egitea, horrek ez bait zuen arau moralik hausten. Beraz, orduan onartuta zegoena ezin izan daiteke inmorala eta egin ezinezkoa gaur egun» eman du azaltzera kardinalak.



HBk Atxarteri buruzko iritzia azaldu zuen atzo Bilbon.

SIMAL